



## EBAZPENA

**Espedientea: LEA/AVC 271-SAN-2018 zk.**

### **Aurkibidea:**

I. SALAKETAREN EGITATEAK ETA EDUKIA .....	1
II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK .....	2
III. EBAZTEKO ESKUMENA .....	5
IV. EBAZTEN DU .....	6

### **Osoko bilkura:**

Alba Urresola Clavero andrea, presidentea  
Rafael Iturriaga Nieva jauna, kontseilukidea  
Enara Venturini Alvarez andrea, kontseilukidea  
Idazkaria: María Lourdes Muñoa Corral

Lehiaren Euskal Kontseiluak (aurrerantzean, LEK), 2018ko urriaren 18ko bilkuran, adierazitakoek parte hartzen dutela, txosten hau eman du 271-SAN-2018 zk. espedientean.

## **I. SALAKETAREN EGITATEAK ETA EDUKIA**

1. Salatzailea, F.J.S.G. jauna, BJABO-Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuko letradu elkargokidea da; Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren Arbitraje Gortearen laudo batek zenbatetsi dizkio bere zerbitzuaren ordainsariak bi bezerori haien ezkontza-banantzearen eta ondarearen araubide ekonomikoaren likidazioaren alorrean egindako zerbitzuengatik.

2. M.B.Z.L. andreak eta J.A.A.E. jaunak F.J.S.G. jauna kontratatu zuten aholkularitza juridikoko zerbitzuak egin ziezazkien ezkontza-banantzeko eta ondarearen araubide ekonomikoa likidatzeko prozesuan.

3. Biek ala biek ebatzi zuten F.J.S.G. jaunak minutan aurkeztu zizkien ordainsariak gehiegizkoak zirela, eta A.L.M. jaun letraduarengana jo zuten.

4. Ezadostasuna BJABOaren arbitrajearen mende jarri zen.



5. LEA/AVCaren aurrean aurkeztutako salaketaren arabera, Bizkaiko Abokatuen Bazkunaren Arbitraje Gortearen laudoak Legelarien Euskal Kontseiluaren Orientazio-Baremoak hartu ditu oinarritzat, eta arauz debekatuta daude baremo horiek.

Salatzaileak argudiatzen duenez, ez gaude kostuak tasatze edo kontuen zin-egite baten aurrean, eta ezin dira aplikatu «ez eta elkargoek ezarritako orientazio-irizpideak ere, are gutxiago baremoak», eta, horrenbestez, Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsuaren Arbitraje Gorteak arau-hauste oso astun bat egin du, LDLaren 1. artikuluan aurreikusia. Ondorioz, hau eskatu du: ebazpena eman dezatela, jokabide hori bertan behera gera dadin aginduta, interes publikoaren aurkako praktika debekatu horren ondorioak desegitea aginduta, eta, behar izanez gero, isun bat ezar dezatela.

## II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK

4. F.J.S.G. jaunak adierazi duenez, A.L.M. jaun letraduak, M.B.Z.L. andrearen eta J.A.A.E. jaunaren ordez, gutun bat igorri zion, non esaten baitzen aldea zegoela minutuan azaltzen zenaren eta «arauetan ezartzen diren orientazio-irizpideen artean».

5. Bi egitate azpimarratzen ditu gainera. Batetik, arbitraje-prozeduran frogantza hau egin izana: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Ordainsarien Batzordeak irizpena ematea. Hala, laudoaren seigarren puntuan, eskatutako frogantzari buruzkoan, 10. puntuan, esaten da:

«Arbitroak erabaki zuen alde bien froga guztiak onartzea, eta Arbitraje Gortearen Erregelamenduaren 31. artikuluan aurreikusten dena baliatuz, ebatzi zuen egin zedila halaber honako frogantza hau: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkunaren Ordainsarien Batzordeak irizpen bat eman zezala, Legelarien Euskal Kontseiluaren orientazio-irizpideak oinarritzat hartuz Francisco Javier Sáez letraduak egindako zerbitzu profesionalei legozkiekeen ordainsari profesionalen zenbatekoaz. Frogantza horren beharraren eta komenigarritasunaren oinarria zen alderdi demandatuak bere erantzun-idazkian eskatu zuela kontratuaren deuseztasuna deklaratu zedila eta ordainsarien likidazioa egin Legelarien Euskal Kontseiluaren Ordainsarien Arauetan ezarritakoaren arabera».

Hau da, salatzen da Arbitraje Gorteak laudoa ebazteko ontzat eman zuela salatuek eskatutako frogantza bat; hain zuzen, Abokatuen Bazkuneko Ordainsarien Batzordeak Legelarien Euskal Kontseiluen Arauen arabera irizpen bat egitea.

6. Salaketan azpimarratzen den bigarren egitatea laudoaren 18. orrialdean agertzen den gogoeta da:

«Arrazoizkotzat eta onargarritzat jo daiteke, kontuan hartuz onartu ere egin zutela demandatuek, eta abokatuaren eskuetan ipini edo hari eskaintzera ere heldu zirela. Horrela, ondorioztatzen dugu egokia dela 50.000 euroko



ordainsaria, zenbateko horrek egoki ordaintzen dituelako egindako lanak eta bezeroek onartu zutelako».

**7.** Salatzaileak ondorioztatzen du A.L.M. jaun letraduak, Legelarien Euskal Kontseiluaren Orientazio Arauen arabera, arrazoizko ordainsaria 35.000 eta 40.000 euro bitartean zenbatesten zuenez, eta M.B.Z.L. andrea eta J.A.A.E. jauna 50.000 euro eskaintzera iritsi zirenez, eta azkenean laudoak zenbateko hori onetsi zuenez, laudo horrek, balioespenerako, Legelarien Euskal Kontseiluaren Orientazio Arauak erabili zituela, zeinek legeriak debekatzen dituen irizpideak eta baremoak hartzen baitituzte.

**8.** Jakina denez, Zerbitzuen Zuzentarauaren transposizioaren ondoren, Omnibus Legearen aldaketaz geroztik, Elkargo Profesionalen Legean debekatuta dago oro har orientaziozko ordainsariak ezartzea, salbuespen bakarrarekin: irizpideak lantzea, abokatuen kostuen tasazioei eta kontuen zin-egiteei dagokienez, baita doako laguntza juridikoaren kostuen tasazioari dagokionez ere. Hori dela eta, argitu behar da 2/1974 Legearen laugarren xedapen gehigarriak orientazioko «irizpideak» eta ez orientazioko «baremoak» aipatzen dituela, eta orientazio-irizpidetzat hartu behar dela abokatuen kostuen tasazioan eta kontuen zin-egitean kontuan hartu behar den elementu multzoa, eta ez irizpide horiek kasu jakin bakoitzean aplikatzearen emaitza kuantitatiboa, hori prezioa edo ordainsaria izango litzatekeelako.

**9.** Arau-oinarria argitu ondoren, ondo aztertu behar dira deskribatu diren egitateak, bai eta laudoak zer *ratio decidiendi* edo arrazoibide askietsi baliatzen duen ondorioztatzeko 50.000 euroko zenbatekoa egokia dela letraduak, orain salatzailea denak, egindako lana ordaintzeko.

**10.** Horrela, salaketa-idatzian ez dira aipatzen Auzitegi Gorenaren jurisprudentiaren araberako irizpideak, laudoak ordainsaria zehazteko erabiltzen dituenak eta haren 16. eta 18. orrialdeen artean datozenak; hauek, hain zuzen ere:

- auziaren munta (AGE, 1994ko martxoaren 15ekoa).
- egindako lana (AGE, 1994ko martxoaren 15ekoa).
- konplexutasun-maila (AGE, 1994ko martxoaren 15ekoa).
- behar izan duen ardura eta lortu diren emaitzak (AGE, 1994ko martxoaren 15ekoa).
- auziaren izaera (AGE, 1998ko otsailaren 24koa).
- egindako lanketaren zabaltasuna eta konplexutasuna (AGE, 1998ko otsailaren 24koa).
- eskaini zaion denbora (AGE, 2001eko otsailaren 16koa).
- auzi kopurua (AGE, 2001eko otsailaren 16koa).



- gorabeheren konplexutasuna eta emaitza onuragarriak (AGE, 2001eko otsailaren 16koa).
- lekuan lekuko ohitura edo usadioa (AGE, 1998ko otsailaren 3koa).
- zuhurtzia- eta bidezketasun-irizpidearen araberako haztapena (AGEak: 1988ko maiatzaren 4koa, 1999ko irailaren 16koa, 2007ko irailaren 28koa, 2007ko azaroaren 29koa, 2008ko urriaren 31koa eta 2012ko martxoaren 12koa).

Honela jarraitzen du laudoak:

«Horiek guztiak dira aintzat hartu beharreko elementuak ordainsariak zenbatesteko orduan, haiei buruz ezadostasunik dagoenean edo ordainsariak hitzartzen direnean.

Kasu honetan, esan bezala, dokumentuan agertzen den zenbatekoa alde batera utzita, bidezkoa da sistema bat hautatzea non, abokatuaren esku-hartzea aipatu irizpideen arabera balioesteaz gain, aintzat hartzen baita bezeroaren onarpena.

Zalantzagabea da (ezkontideen araubide ekonomikoaren likidazio-eskriurak, dibortzio-auzibideari buruzko dokumentazioa) esleitu zitzaion auziak munta ekonomiko nabarmena zuela, eta horrek, letraduaren erantzukizunean eragina duen bezalaxe ondorioak izan behar dituela haren zerbitzuen prezioan. Aurkeztu den dokumentaziotik eratoritzen da letraduak esku-hartze aktiboa izan zuela hitzarmen erregulatzailerak idatzi eta negoziatzeko aldiak. Halaber, baliozta daiteke esleitu zitzaion auziak bazuela konplexutasun-maila bat, irabazpidezko sozietatearen aktiboaren eta pasiboaren osaera kontuan hartuta.

Halaber, baliozta liteke eta kasu honetan erabakigarria da zerbitzua ordaintzeko betebeharra duen alderdiak beren-beregi erakutsi duela bere adostasuna ordaintza batekin, beste profesional baten aholkua jaso ondoren, zeinak aukera izan baitzuen jarduketak zehazki ezaqutu eta balioztatzeko (nahiz eta alderdi horrek bere ondorioen idazkian esan ere esan duen ordainsariak Abokatuen Bazkunak egindako txostenaren arabera izan behar direla).

Demandatuek eskainitako zenbateko hori (50.000 €) bidezko eta onargarritzat jo daiteke, kontuan hartuz hala onartu zutela demandatuek ere, abokatuaren esku ipini eta hari eskaintzera iritsi ziren-eta. Horrela, ondorioztatzen dugu egokia dela 50.000 euroko ordainsaria, zenbateko horrek egoki ordaintzen dituelako egindako lanak eta aurretiaz bezeroek onartu zutelako».

**11.** 50.000 euroko zenbatekoa zehazteko erabili diren irizpideak irakurri ondoren, laudoaren 16. eta 18. orrialdeetan jasotzen baitira, ezin da ondorioztatzea elkargoen edo Legelarien Euskal Kontseiluaren orientazio-irizpide eta -baremoak erabili direnik, baizik Auzitegi Gorenaren jurisprudentziako irizpide orokorrak, ezadostasunaren mami zehatzari ekitatez aplikatuak.



### III. EBAZTEKO ESKUMENA

**12.** Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen 10. artikulua honako hau xedatzen du:

10. artikulua.- Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak. Lehiaren Euskal Kontseiluaren eginkizunak honako hauek dira: (...)e) Administrazioak bere kabuz hasitako jarduerak edo salaketak artxibatzea ebaztea, hala egin behar denean, zehapen-espeditante bihurtu baino lehen, (...)

**13.** LDLren 49.3. artikulua honako hau xedatzen du: 3. Lehiaren Batzorde Nazionalaren Kontseiluak, Ikerketa Zuzendaritzak proposatuta, lege honen 1, 2, eta 3. artikuluetan debekatutako jokaerak ustez izateagatik hasi beharreko prozedurak ez hastea erabakitzeko aukera izango du, eta ordura arteko jarduerak artxibatzeko aukera, legea urratu izanaren zantzurik ez dagoela irizten baldin badio.

**14.** 261/2008 Errege Dekretuak, otsailaren 22koak, Lehiaren Defentsarako Araudia onesten duenak, bere 27. artikuluan honako hau xedatzen du: Lehiaren Batzorde Nazionaleko Kontseiluak (kasu honetan Lehiaren Euskal Kontseiluak) prozedurari ez ekitea erabaki ahal izan dezan, bai eta jarduketak artxibatzea ere, uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 44. eta 49.3 artikuluetan ezarritakoaren arabera, Ikerketa Zuzendaritzak berariaz helaraziko dizkio jasotako salaketa, aurretiaz egindako jarduerak —hala dagokionean— eta artxibatzeko proposamena.

**15.** Gainera, Lehia Defendatzeko Erregelamenduak (LDE), otsailaren 22ko 261/2008 Errege Dekretuz onetsia, 25. artikuluan ezartzen duenez, salaketa behar bezala jarri izanak ez du esan nahi Ikerketa Zuzendaritzak ezinbestean zehapen-prozedura abiarazi behar duenik. Prozedura ez hasteko erabakia salatzaileari jakinarazi beharko zaio, azalduz zergatik ez den bidezkoa prozedura irekitzea.

**16.** Aurrekoarekin bat eginez, eta, txostenean oinarrituta, Ikerketa Zuzendaritzak zehapen-espeditanterik ez hasteko eta salaketa artxibatzeko proposamena egin zuen 2018ko ekainaren 6an. Kontseilu honek onartu egiten du Ikerketa Zuzendaritzaren aipatutako proposamena; izan ere, egindako instrukziotik ondorioztatzen denez, bai eta azaldutako egitezko eta zuzenbideko oinarrietatik ere, ez dago arau-hausteen zantzurik. Hortaz, salaketak ez du nahikoa funtsik, eta, horren ondorioz, ez dagokio zehapen-espeditanterik hastea, 27. artikuluko bigarren zenbakiarekin bat eginez.

**17.** Aipatutako lege-manuak eta orokorrean aplikatzekoak direnak ikusita, Lehiaren Euskal Kontseilu honek,



## IV. EBAZTEN DU

**LEHENA.-** Ez hastea zehapen-prozedurarik, eta artxibatzea erreferentziako Ezkutuko Informazioaren barnean egin eta egikaritu diren jarduketak, ez delako egiaztatuta geratu Lehia Defendatzeari buruzko uztailaren 3ko 15/2007 Legearen 1. eta 2. artikulua urratu direlako zantzu nahikorik, iritzi baitzaio delako tartekaritza-laudoak ez dituela erabili Legelarien Euskal Kontseiluaren irizpideak eta baremoak bere juzgua emateko, bai, ordea, eztabaidaren mami zehatzari aplikaturiko jurisprudentziazko irizpide orokorrak.

**BIGARRENA.-** Ebazpen honen berri ematea Lehiaren Euskal Agintaritzako Ikerketa Zuzendaritzari, eta interesdunei jakinaraztea, ohartaraziz ebazpen honek administrazio-bidea amaitzen duela, eta administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezaketela EAEko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik hasita.